

ORDENANTZA FISKALA, AGIRIAK ETA BESTELAKO EUSKARRIAK EGIN ETA BIDERATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

8. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluako 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Ordainarazpen honen xedea da agiri hauek egiten dituzten edo haien gaineko arduraren udal-organoen eta -agintarien administrazio-jarduna, interesdunek eskatuta:

- 1) Udal-artxiboetan dauden planoen eta fitxategien kopiak, hala paperezko euskarrian nola euskarri digitalean.
- 2) Ziurtagiriak, salbu Udal Erroldako edozein motatako datuei buruzkoak.
- 3) Agirien kopia kautoak, salbu Katastroko edozein daturen gainean egindakoak.
- 4) Fotokopiak.
- 5) Arma-txartelak.
- 6) Eskola garraiorako baimenak.
- 7) Lanpostuetarako deialdiak, hala Udalean sartzeko nola prestakuntzako zein aldi baterako kontratazioak egiteko.
- 8) Lizentziak edo baimenak egiaztatzeko agiriak, eta aplikagarriak diren arauak galdatutako baldintzak betetzen direla ziurtatzekoak, salbu halakoak ematen badira lizentziak edo baimenak ematean, aldatzean edo tasa pean aztertzean.
- 9) Ahalordeen askiespenak.
- 10) Aurrekontuak eta Ordenantza Fiskalak.
- 11) Txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak, salbu familiak berrelkartzeko xedez etxebizitza eskuratzearen gaineko txostenak.
- 12) Esportaziorako prestatutako jakiei buruzko ziurtagiriak.

Sortzapena

3. artikulua.- 1) Ordenantza honetan ezarritako tasak agiria egiteko edo bideratzeko eskabidea aurkeztean sortuko dira, eta agiri hori ez da eginen edo bideratuko, baldin eta tasa lehenago ordaindu ez bada eta hori egiaztatu behar duen ordainagiria egin ez bada. Lanpostuetarako deialdien kasuan tasa sortuko da hauta-probetan izena emateko eskabidea aurkezten den unean.

2) Aurrekoa gorabehera, honako hauek adieraziko den borondatezko epean ordainduko dira:

- a) Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuneko Alorrak txostenak emateagatik edo kontsultei erantzuteagatik ordaindu beharreko tasak, betiere txostena edo erantzuna onetsi eta tasa likidatzen duen ebazpenean ezarriko denarekin bat.
- b) Esportaziorako prestatutako jakien ziurtagiriak emateagatik ordaindu beharreko tasak, hiru hilez behingo likidazioa onesteko ebazpenak xedatutako duenarekin bat.

Subjektu pasiboak

4. artikulua.- Tasa honako hauek ordaindu beharko dute: tasaren xede diren agiriak egiteko edo bideratzeko eskatzen dutenak eta lanpostuetarako deialdietan parte hartzen dutenak, dela funtzio publikoan sartzeko dela prestakuntzako zein aldi baterako kontratazioetarako.

5. artikulua.- V. epigrafearen 5. ataleko tarifak aplikatuko zaizkie interes orokorreko ikerlan bat egiten ari direla sinadura pertsonalez izenpetutako deklarazio bidez justifikatzen duten pertsonen edo Unibertsitateko ikasketak edo unibertsitatez bestekoak egiten ari direla egiaztatzen dutenei.

Tarifak

6. artikulua.- Ordaindu beharreko tasak Ordenantza honen eranskinean jaso dira.
Kudeaketa-arauak

7. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasak Udaleko Diruzaintzan ordainduko dira, edo Udalak gordailu-entitate batean irekitako kontu korrontean, eta, salbu 3.2) artikuluan xedatutakoari dagokionez, eskatutako agiria ez da eginen ordaindu izanaren egiaztagiria jaso arte.

Honako hauek dira diru-bilketarako arau bereziak:

- a) Arma-txartelarako izapideak egiteagatik ordaindu beharreko tasak Herritarren Segurtasuneko Alorreko bulegoetan jarritako eskudirutako kutxan ordaintzen ahalko dira.
- b) Interesdunek aurkeztutako agirien kopia kautoak egiteagatik ordaindu beharreko tasak erregistro-bulegoetan eta Idazkaritza Nagusian jarritako eskudirutako kutxetan ordaintzen ahalko dira.

c) Ziurtagiriak, txostenak, administrazio-agirien kopia kautoak edo fotokopiak egiteagatik ordaindu beharreko tasak ziurtagiria, txostena, kopiak edo fotokopiak zein Alorrek eman eta bertako bulegoetan jarritako eskudirutako kutxetan ordaintzen ahalko dira.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA - HIRIGINTZA-AGIRIEN ETA PLANOEN KOPIAK, ETA FITXATEGIEN BIHURKETA ETA INPRIMAKETA	
1) Udal Planaren planoak edo espediente publikoetan daudenak, paperezko euskarrian:	
- Metro lineala	7,10 euro
- DIN A0	7,95 euro
- DIN A1	3,95 euro
- DIN A2	2,05 euro
- DIN A3	0,50 euro
- Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren krokisa	3,55 euro
2) Fitxategien kopiak, euskarri digitalean:	
- Lehen fitxategiarengatik CD euskarrian	10,40 euro
- Lehen fitxategiarengatik DVD euskarrian	10,40 euro
- Gehitutako fitxategi bakoitzarengatik edo interesdunek bestelako euskarrietan aurkeztutako kopia digital bakoitzarengatik	4,75 euro
- - Fitxategien kopiak telematikoki igortzeagatik.	4,75 euro
II. EPIGRAFEA.- EGIAZTAGIRIAK	
1) Udalaren base informatikoetan bildutako datuei buruzko egiaztagiriak	3,85 euro
2) Espediente administratiboetan jasotako erabaki edo agiriei buruzko egiaztagiriak	7,25 euro
3) Eginak izateko aurretik txosten bat behar duten egiaztagiriak. Txosten bakoitzeko	22,80 euro
Egiaztagiriarekin batera planoak edota fotokopiak –eginbidetuak edo eginbidetu gabe– ematen badira, I., III. edo IV. epigrafeetan dagozkien tasak ere galdutako dira.	
III. EPIGRAFEA.- ADMINISTRAZIO-AGIRIEN KOPIA KAUTOAK	
1) Espediente administratiboetan jasotako agirien kopia kautoa	4,25 euro
2) Udalaren base informatikoetan bildutako datuen kopia kautoa	4,95 euro
Tarifa aplikatzeko, kopia bakartzat jotzen da espediente batean jasotako agirien eta datuen gainean egiten dena, pertsona berarendako bada. Aurreko zenbakietan ezarritako tasari gehitu beharko zaio I. eta V. epigrafeetan dagokiona, emandako plano edota egindako fotokopiengatik.	
3) Trafiko-istripu baten atestatuaren kopia kautoa	84,35 euro
IV. EPIGRAFEA.- INTERESDUNEK AURKEZTUTAKO AGIRIEN KOPIA KAUTOAK	
1) Kopia bakoitzeko	2,35 euro
Tarifa aplikatzeko, kopia bakartzat jotzen da espediente bakar batean pertsona batek eta berak aurkezten dituen agiriak oro.	

V. EPIGRAFEA.- PARTIKULARREN INTERESEKO AGIRI-ONDAREKO AGIRIEN KOPIAK	
1) Edozein agiri-mota kontsultatzeko egindako kopia bakoitzeko (kopiak paperean edo digitalak izan daitezke):	
- DIN A3 zuri-beltzean	0,35 euro
- DIN A4 zuri-beltzean	0,25 euro
- DIN A3 koloretan	1,50 euro
- DIN A4 koloretan	1,20 euro
2) Mikroformatik abiatuta eginiko kontsulta-kopia bakoitzeko:	
- DIN A3	0,45 euro
- DIN A4	0,35 euro
3) Bereizmen handiko kopia digital bakoitzeko, hura editatu edota inprimatzeko	
	4,75 euro
4) Disko optikoa ematea	
	0,65 euro
5) Aurreko ataletan ezarritako tasen % 50eko zenbatekoa galdatuko da, interes orokorreko ikerlanak egitearekin edo ikasketekin lotura duten kopiak egitearen truke.	

VI. EPIGRAFEA - ARMA-TXARTELETARAKO IZAPIDEAK EGITEA	
1) Txartel bakoitzeko	11,00 euro
VII. EPIGRAFEA – ESKOLA-GARRAIORAKO BAIMENA	
1) Baimen bakoitzeko	8,40 euro

VIII. EPIGRAFEA – IRUÑEKO UDALAREN EDOTA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO LANPOSTUEN DEIALDIAK	
Funtzionario edo karrerako langile finko gisara sartzeko deialdiak:	
A maila	25,00 euro
B maila	22,00 euro
C maila	15,00 euro
D maila	10,00 euro
Aldi baterako kontratazioetarako deialdiak (lan- eta administrazio-araubideetan) edo prestakuntzakoak:	
A maila	12,50 euro
B maila	11,00 euro
C maila	7,50 euro
D maila	5,00 euro

IX. EPIGRAFEA.- LIZENTZIAK EDO BAIMENAK EGIAZTATZEKO AGIRIAK, ETA APLIKAGARRIAK DIREN ARAUEK GALDATUTAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ZIURTATZEKOAK	
1) Ohiz kanpoko ikuskizun publikoak egiteko, atari zabalean	115,55 euro
2) Ohiz kanpoko ikuskizun publikoak egiteko, toki itxietan	114,60 euro
3) Zaldiko-maldikoak, karruselak eta bestelako instalazio mugikorrek jartzeko	14,75 euro
4) Jardueraren funtzionamendurako, titularra aldatuta	11,85 euro
5) Beste zenbait	9,05 euro

X. EPIGRAFEA - AHALORDEEN ASKIESPENAK	
1) Askiespen bakoitzeko	8,35 euro

XI. EPIGRAFEA - AURREKONTUAK ETA ORDENANTZA FISKALAK	
1) Ale bakoitzeko:	
- Ordenantzak	13,85 euro
- Aurrekontuak	13,85 euro

XII. EPIGRAFEA - TXOSTENAK ETA KONSULTEN ERANTZUNAK	
1) Etxebizitza-deskalifikazio bakoitzeko eskaturiko txostena egiteagatik	22,80 euro
2) Partikularrek eskatuta Udaltzaingoak eman beharreko txostenak egin edo zabaltzeagatik	52,55 euro
3) Hirigintzari buruzko kontsultak erantzuteagatik	145,05 euro
4) Jarduera-lizentzia behar duten jardueren aldaketei buruzko azterlan eta txostenengatik	145,05 euro
5) Txostenak edota ziurtagiriak egiteagatik Udal Artxiboko dokumentazio historikoari buruz	30,00 euro
6) Interesdunek Udal Artxiboan berriazko informazioa bilatzeko eskatzeagatik (prezioa ordu bakoitzeko*)	27,00 euro
7) Txostenak emateagatik eta kontsultak erantzuteagatik, oro har	18,70 euro
Txostena emateko edo kontsulta erantzuteko aldez aurretik osasun-ikuskapeneko bisita egin behar bada, ikuskatze-bisitari dagokion tasa ere likidatuko da.	

* Halako kasuetan, interesdunek inguruabar jakin batzuk direla bide, ezin dute edo ez dute nahi beraiek egin ikerketa- eta dokumentazio-jarduna Udal Artxiboan, eta horregatik zerbitzuari berari zuzenean enkargatzen diote.

XIII. EPIGRAFEA.- ESPORTAZIORAKO PRESTATURIKO JAKIEI BURUZKO ZIURTAGIRIAK	
1) Ziurtagiri bakoitzeko	35,65 euro